

## **BALIABIDEAK**

Gure proiektuak aurrera egin ahal izateko, hainbat baliabide behar ditugu, eta hauek ondo sailkatuta izatea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Alde batetik, langileak ditugu, giza baliabide nagusiak direnak. Haiek arduratuko dira pardelak garbitzeaz, banaketaz, bezeroei arreta emateaz eta logistika guztia kudeatzeaz. Azken finean, eguneroko jarduera posible egiten duten pertsonak dira, eta proiektuaren oinarria dira.

Bestetik, hornitzaile bat izatea ezinbestekoa dugu. Hornitzailea bera ez da baliabide fisiko bat, baina berak eskaintzen dituen lehengaiak, hau da, pardelak edo garbiketa-produktuak, baliabide fisikotzat hartzen ditugu.

Azkenik, furgoneta bat ere beharrezkoa dugu. Hau baliabide fisiko argia da, pardelak bildu eta bezeroei entregatzeko erabiltzen den ibilgailua delako. Beharrezkoa da gure zerbitzua aurrera eman ahal izateko, eta zerbitzua egunero modu eraginkorrean emateko ere ezinbestekoa da.

Giza baliabideei dagokienez, langileez gain, banatzaileak eta salmenta-taldea, zuzendaritza-taldearen gaitasunak eta esperientzia ere oso garrantzitsuak direla iruditzen zaigu. Eta azkenik, finantza baliabideak aipatu behar dira: hasierako inbertsioa, pardelak, furgoneta eta eguneroko gastuak estaltzeko lan-kapitala.